

Prentsa-oharra



Bizkaiko autoeskoletan
gidabaimena euskaraz ateratzeko prest!

Aurrekariak

Debagoieneko Mankomunitateak gidabaimena EUSKARAZ izeneko ekimena aurkeztu zuen 2009an, B1 gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera ahalbidetzeko asmoz mankomunitateko herrietan, Igorreko Arratia Autoeskolako nik neuk hainbat urtetan euskaratutako materialari eta AEOL argitaletxeari esker. Iaz, Urola Kostako Udal Elkarteak osatzen duten herrietara (Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia) eta Oiartzunera zabaldu zen Gipuzkoan, eta Bermeora zein Mundakara Bizkaian. Aurten, berriz, Buruntzaldera (Andoain, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil), Bizkaian parte hartzen duten herrietara eta Arabako Laudio herrira ere iritsi da kanpaina.

Kanpainaren helburuak eta hari lotutako ekintzak

Kanpainaren helburu nagusia euskararen erabilera sustatzea da gidabaimena ateratzeko ikaskuntzan. Hori lortzeko, irakaskuntza ematen dutenen eta ikaskuntza jasotzen dutenen arteko elkarerreragina lortzeko ekintza bi gauzatu dira:

(1) Sentiberatze-ekintza zuzeneko mailenez, 17-23 urte dauzkaten herriko gazteen artean. Horretarako, **Atzeko jesarlekua estreinatu aurretik... PRAKTIKA EZAZU** leloa darioan triptikoa iritsiko zaie etxera. Eta gazteak animatzeko, azterketa teorikoa euskaraz egiten dutenei lehen eskola praktikoa oparituko zaie. Horrez gain, Bizkaian parte hartu duten herrietan azterketa teorikoa euskaraz egiten duten gazteen artean EUROPA ZEHAR IBILTZEKO INTERRAIL BIDAIA zozketatuko da, irabazlearentzat eta hiru lagunentzat.

(2) Hitzarmena sinatu da egitasmoan parte hartzen duten autoeskoletan. Hitzarmen horren arabera, autoeskoletak euskarazko produktuak jasotzeko konpromisoa hartu dute kanpaina abiatu ordutik eta, trukean, euskara zerbitzuek euskarazko produktuak



finantzatzen lagunduko diete autoeskoiei eta bakoitzak eskaintzen duenaren berri emango du.

Parte-hartzaileak

Kanpaina Bizkaiko hainbat herritan garatuko da: ARRIGORRIAGA, ELORRIO, ERANDIO, GETXO, MUNGIA, ONDARROA, URIBE KOSTAKO MANKOMUNITATEA eta TXORIERRIKO MANKOMUNITATEA.

Alkarbide, Bizkaiko Euskara Zerbitzuen Bilguneak koordinatu du kanpaina eta Bizkaiko Foru Aldundiak babestu, Eusko Jaurlaritzaren eta EUDEL-en laguntzaz.

Beste alde batetik, herri sustatzaileetan 27 bulego dauzkaten 21 autoeskolak bat egin dute egitasmoarekin.

AGUSTIN AUTOESKOLA • ALGORTA AUTOESKOLA • ALTZAGA AUTOESKOLA
 AMEZTI AUTOESKOLA • ARIAS AUTOESKOLA • ASTRABUDUA AUTOESKOLA
 BASURTO AUTOESKOLA • ERANDIO AUTOESKOLA • ETXEKO AUTOESKOLA
 GAZTEDI AUTOESKOLA • GETXO AUTOESKOLA • JAVIER AUTOESKOLA
 KAIKU AUTOESKOLA • MIKEL AUTOESKOLA • MUNGIA AUTOESKOLA
 PRECIADO AUTOESKOLA • SAN INAZIO AUTOESKOLA
 SOLOZABAL AUTOESKOLA • SONDIKA AUTOESKOLA
 SOPELANA AUTOESKOLA • URIBE KOSTA AUTOESKOLA

Euskarriak

Kanpainak hainbat euskarri dauzka:

- Informazio-triptikoa
- Kanpainaren eranskailua, autoeskoletan itsasteko
- Kartela
- Orri mutua

Bestalde, autoeskoiek ondoko euskarri hauek baliatu ahal izango dituzte:

- ❶ Teoria eskuliburua
- ❷ Teoria lantzeko programa informatikoa, ikasleak bere kabuz ikas dezan
- ❸ Irakasle birtuala, irakasleari eskola teorikoak ematen laguntzeko edo eskolak modu birtualean emateko.
- ❹ Zirkulazio seinaleak euskaraz: (8 horma-irudi)